



SAN JOSE ESKOLA
C MAILA
PRIM 33

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1901
Deskribapena

Eraikin bakartua, aldameneko etxebizitza eraikinen lerrokadurei eta bolumenei jarraitzen diena. Gutxi gorabehera, 1.000 m²-hartzten ditu orubearen 1.500 m²-etatik (haurrentzako babes etxerako eraiki zuten). Orubearen gainerakoa lorategi hesitu gisa geratzen da. Udalak orube hori antzinako babes etxeak okupatzen zuenarekin trukatu zuen. Babes etxe berri horretarako proiektua 1901eko da, Ramon Cortazarrena. Jatorriz, behe oina eta bi altuera zituen, barne patio baten inguruan banatuak. Patioa estalita zegoen behe oinean eta lehen oinean. 1902an altuera bat gehiago jaso zuten, eraberritze proiektu baten arabera (Cortazarrena ere). Erdiko patioan, zurezko eta burdinazko egituraz eraikita dago, eta hareharrizko harlanduz eta kareharrizko harlangaitzez akabatutako hormak ditu. Estilo neoklasikoan egina da, baoben konposizio soil eta lauaz, eta erliebe gutxirekin, inguruko arkitekturarekin alderatuta. Harri moten konbinazioetan, egiturak eta koloreak baloratzen ditu.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 - A.- Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
 - B.- Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoben konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihala, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: fatxada osoa, arotzeria eta lorategiaren itxura barne direla.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.